



# Abelgorri Lehiaketako sari batzuk eskualdean gelditu dira

**TOLOSA** ▶ Gazta Lehiaketan aldiz, eskualdeko saria hutsik gelditu da finalistetara ez direlako iritsi

**PARTAIDEAK** ▶ 32 gazta aurkeztu dituzte Beotibarren; Ferialekuan abelgorri ugari izan dira ▶ 6-7

ALKIZA ▶



JOXEMI SAIZAR

## Koldobika Jauregiren erakusketa Ordizian

Barrena jauregian, lorategian eta elizan jarri ditu ikusgai ▶ 4

BIDEGOIAN ▶

## Hurrek ederki pasatu dute marrazten ▶ 5



Jende ugari bildu zen atzo goizean Tolosako Ferialekuan XXXV. Abelgorri Lehiaketa ikustera. NOELIA LATABURI

IRURA ▶

## Jaien bukaeran, Jubilatuen Eguna ▶ 5

**Pausoka Akademia**

- Lehen hezkuntzatik batxilergora bitarteko ikastaroak
- Hizkuntzak: Ingelera, Italiara, Arabiera Thamer eta Itsaso irakasleak

Martin Jose Iraola, 2 behea • TOLOSA • mug.: 686971962 • Tel.: 943 67 24 48



**LANDARRI, S.L**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

- Kanposantuko Lanak**
- Ehorzketak
  - Lurpetik ateratzea
  - Gerakinen lekualdatzea
  - Gerakinen errausketa
  - Errausketa zerbitzua
  - Hilerrien proiektuak
  - Hilerrien eraldaketak
  - Eraikuntza ezberdinak
  - Hilobien apainketa
  - Hilarniak
  - Panteoak
  - Hilobiak
  - Estelak
  - Fotozeramikak
  - Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 67 01 14 - Fax: 943 34 04 67 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552  
posta elektronikoa: landarris.l@terra.es



UZTURRETIK ▶  
JOXAN ORMAZABAL

## Presaka bizi gara

**P**resaka bizi gara. Ez dago lasai bizitzetik. Presaka dabilta autoak kaminoan, bizitza auto-karrera bat balitz bezala. Teknologia ere izugarriko abidan doa. Begiratu bestela informatikari eta ikusi nolako martxa daraman gero eta programa azkarragoak, eraginkorragoak eta perfektuagoak asmatuz, erabiltzaile bakoitzari bere erabiltzaile sortuz eta jendea gero eta berekoia goa bihurtuz. Hor dabilta hegazkinak atzera eta aurrera gelditu ere egin gabe. Presaka egiten dira negozioak eta burtsako jardunaldiak, dirudunak dirudunago izan daitezten eta pobreak pobregoa. Presaka hartzen dute askotan armaz gainezka dauden nazioetako buruzagiek gerra deklaratu eta erregabeak hiltzeko erabakia, eta demokrazia babesteko eta terrorismoa suntsitzeko dela esaten digute. Beti bilatzen dugu presaka ibiltzeko *arrazoien* bat.

Presa hemen, presa han, presaka etxean, lantokian, kalean eta baita mendian ere. Mendian ere bai? Bai. Ez al dituzu ikusi Aizkorriko maratoian mendi-korrikalari superatletikoak? Osasuna garrantzitsua da baina... presaka prestatzen ditugu janariak, eta presakago jan. Presaka hazten dituzte harategietan zintzilik ikusten ditugun oilasko zuri horiek edo berotegietako *barazkiak*. Kulturak ere badu bere garrantzia, eta presaka irakurtzen ikasi behar da liburu asko daukagularekin zain.

Hori guztia horrela dela, orain abiadura handiko trenan jarri nahi digute nik ez dakit noren onerako eta ziur aski lasaiago bizi nahi dugunon kalterako. Lehen azkar, eta orain azkarrago? Nik neuk behintzat, abiadura txikiro bizitza nahi dut luzaro eta zoriontsuago bizi-tzeko.

Eta amore pixka batekin bukatzeko, honela esaten omen zion bere aitona bilobarri etxetik zalapartaka irtenen ikusten zuenean:

- Hi, moteil, egunen batean joan baino lehen etorri egingo haiz.

GUTUN@K ▶



## Hemezortzi urte lanean

1986. urteko biharko egun batean ireki zituen lehenengo aldi-zatek Agintari kaleko lokal txiki batetan. Abegi jarri zitzaion izena eta buruhauste eta hilabete askotako lanaren ondoren hasi zen lanean urte horretako urriaren 4ean.

Abegiren helburuak bi dira: alde batetik kalean inongo errekurtsorik gabe bizi den jendeari laguntza ematea, egun batzuetarako lo egiteko leku bat eta oinarriko beharrak eskaintzea (janaria, etab.) eta baita bertara doazenei ahal den neurrian laguntza morala ematea, entzun, animatu eta ahal den neurrian laguntzea.

Beste helburua gizarteratzea litzateke, ibilitariak erakusten duen egoeraren arabera beren gizarteratzea bideratzen saiatuz.

Esan bezala, 18 urte dira helburu horiek lortzeko lan egi-

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

nez pasa direnak, eta gaur egun ere, hasierako taldea aldatu den arren, helburuak berak dira. Proiektu honen aipagarritasun bat zera da, hiru direla langileak, eta beste lan guztia boluntarioen laguntza bidez egiten dela. Egun, boluntario taldea 15 bat pertsona osatzen dugun arren, argi dago gutxi garelako dagoen lan guztia betetzeko eta bertara etortzen diren ibiltari guztiei beharrezko harrera eskaini ahal izateko. Hala ere tinko eta animotsu jarraitzen dugu lanean.

Abegiko Juntako partaide, boluntario eta langileen artean gonbitea egin nahi genioke laguntzera etorri nahi lukeen edonor, eta bukatzeko, zori onak eman nahi nizkieke Juntako kide naizen bidez, boluntario guztiei eta langileei, hainbeste urtetan egindako lan guztiarengatik eta proiektu hau aurrera eramatea lortu delako, guztion artean hainbeste urtetan.

ITZIAR ARANA (ABEGIKO JUNTAKO  
KIDEA) ▶ TOLOSA

WEB-ETIK ▶



## Galindo kalean da; zer diozu?

Berriro frogatzen da justizia ez dela berdina denentzat, horrelako hilketak egin zituen pertsona bat kalean utzi. Gainera berarekin batera zigortu zituztenak ere kalean daude, bat izan ezik. PSOEK badaki bere lagunak defenditzen. Hau al da talante berria?

TXIKI ▶ TOLOSA

## Mugikortasun Asteaz zer diozu?

Oso ongi iruditu zait, baina nire adinekook ez dakigu bizikletan ibiltzen. Ni Tolosara oinez joan nintzen Zizurkilidik.

MARIA TERESA ▶ ZIZURKIL

Kanpaina hauek marketing hutsa dira. Itxura gehiegi eta marmia batez. Hobe litzateke Tolosa, Anoeta eta Zizurkil artean bidegorria egingo balute.

KEXATI ▶ TOLOSA

Ondo iruditzen zait. Kotxea erabiltzen dut, baina gustura erabiliko nuke autobusa lanetik gertu geratzen baitzait geltokia. Baina Tolosatik Irurara Bilabonara joateko autobusa garesti samarra da eta 4 buelta egin behar ditudanez, merkeago ateratzen zait kotxea.

XXX ▶ TOLOSA

Ondo iruditzen zaizkit mota horretako kanpainak, baina askotan saiakera hutsean geratzen dela nabaritzen dut. Benetazko konpromisoak behar dira eta ez dut horretarako asmo handiegirik ikusten.

NERETXU ▶ TOLOSA

Zerbait egitea inoiz ez da alferrikakoa; baliagarriak dira mota horretako kanpainak. Bestalde, kanpainak ezekiz azpiegitura egokiak, hala nola, bidegorriak, bizikleta alokairuak... jartzean ere saiatu behar harko lirarete. Aste horretan ezekiz, urte guztian mantendu beharreko filosofia beharke luke izan.

MIREN MAITE ▶ TOLOSA

ARGITXU ZABALA ▶ ABALTZISKETAKO ALKATEA

# «Ingurura begiratuta emakume gazteak indartsu gatozela sumatzen da»

Zinegotzi bezala hasi zuen legealdia Argitxu Zabalak;  
ekainaz geroztik, herriko alkatea da; Abaltzisketako  
lehenengo emakume alkatea da bera

OLAIA ESKITXABEL

Argitxu Zabalak hartu du Jesus Mari Orbegozoren lekua udal-lehen; ekainean, eta Orbegozok dimisioa aurkeztu ondoren, sanjoan iritsi baino lau egun lehenago izendatu zuten alkate.

**Zinegotzi hasi zenuen legealdia eta alkate amaituko duzu.** Orbegozok dimittitu egin zuen maiatza inguruan; eta gainontzeko sei zinegotzien artean alkatea izendatu behar genuen. Zinegotzietako bat alkate-funtzioa betetzeko prest agertu zen, baina soldataren trukean. Abaltzisketa bezalako herri txiki batean diru gutxi dagoela kontuan izanda soldatarik gabe lan egingo zuen norbait

behar genuela argi geneukan beste zinegotziok. Era berean, inork ez zuen bere gain hartu nahi alkate izatearen ardura. Azkenean, bost zinegotzian artean zozketa egin genuen eta nire izena ateratu zen.

**Eta nola izan da hortik aurrerakoa?**

Hasieran, mundua gainera erori zitzaidan; eta hurrengo bi asteak oso gogorak izan ziren. Dena berria da eta asko ikasi behar da.

**Baina eginkizien horretan beste zinegotzian laguntza ere izan duzu, ezta?**

Zozketa egin genuenean argi utzi genuen ateratzen zena atera ere gainontzekoek laguntza eta babesa eskainiko ziotela. Eta horrela izan da. Gure ar-

tean konfiantza giroa dago eta eskaintzen didaten laguntzarik ezean ez dakit zer egingo nukeen. Idazkariaren ondoan sartzen ditudan orduak ere oso baliagarriak zaizkit.

**Abaltzisketan alkatetzan dagoen lehenengo emakumea zara. Ardura gehiago sentitzen al da?**

Ez zait iruditzen; nahikoa ardurabada alkate izatea eta joan behar den lekuan lana ondo betetzea.

**Eskualdean ere emakume dezentz zaudete alkatetzan; bartzuk oso gazteak zarete gainera.**

Eskualdean emakume ugari dago alkatetzan; Alegiako alkatea, Olatz Amundarain, esaterako, nire adinkidea da. Ingu-

rura begiratuta, emakume gazteak indartsu gatozela somatzen da. Abaltzisketako udal-lehen ere inoiz baino emakume gehiago daude. Ni kontatu gabe, beste bi emakume zinegotzi daude udal taldean.

**Goizean lanera joan eta atera bezain laister udal-lehen sartzan zara.**

Arratsaldera arte lanean aritzen naiz eta ateratakoan udal-lehenaren joan naiz. Alkate izateak denbora eta ardura asko eskatzen du. Ahal dudana egin saiatzen naiz.

**Zeintzuk dira, zure ustez, egun Abaltzisketako dituen beharrak?**

Eskola berriaren eraikina egitea eta etxebizitza berriak eraikitzea. Babes ofizialeko etxebizitza egitea ere oso garrantzitsua da.

**Izan ere, lehen Amezketako Zumadi eskolako gelak Abaltzisketako Txalburu eskola bihurtu dira aurretan.**

Zumadi eskolako gelak izatetik herri eskola gisa funtzionatzen pasatu dira. Haurrak oso gustura daude; ingeles eskolak jasotzen dituzte eta irakasketa gehiago dituzte. Guraso Elkartea ere osatu da eta gurasoak animatuta daude. Hala ere, gauza asko daude hobetzeko. Leku gutxi daukate; baldintza hobeak merezi dituzte eta horretatik da garrantzitsua esko-

IRITZIA ▶ JESUS MARIA PENILLA IBAÑEZ (ZINEMAZALEA)

## Tolosar bat Zinemaldian

**H**asieran, Donostiako 52. Zinemaldia zailtasun handirekin aurkezten zen, batez ere ekonomikoak, eta bere iraupena egun batez murrizten zen.

Ondoren, Woody Allen bere azken filma *Melinda, Melinda*arekin Zinemaldia inauguratuz zatorrela iragarri zenean, salbatuta zegoela hasi zen ikusten. Eta hala izan zen, Woody Allenen presentziak indar mediatiko handia izan du eta ikusle goaren mirespena esnatu du. Elkarrizketa batzuetan Woody Allenek bere ezkortasuna azaldu du, bere zinemaren ezaugarri, bere herrialdeaz eta munduaz. Zinemaldiak bere 45 film —aktore eta zuzendari gisa— emanez atzera begirako saila eskaini dio. Arrakastatsua izan da.

Bestalde, Zinemaldiaren antolatzaileek aurten Sail Ofiziala XXI mendeko gure gizartearen isla izatea nahi zuten. Testigantza konpromisoko zinema.

Eta horrela izan da. Sail Ofizialak gerraren basakeria eta bere ondorioak islatu ditu, batez ere haur errefuxiatuekin, bere biktima handienak; emigratioaren fenomeno eta integrazio arazoak; probeziaren gorakada; ustelkeria

politikoa; terrorismoa; konpromiso sozial eta politikoaren desengainua; aldatetaren zailtasuna; narkotrafikoa. Indar eta gordintasun handia lortu du horrek guztiak; saritutako hiru filmekin programa hirukoitz batera joan izan balitz, irteeran zainak moztuko zituela idatzi zuen zinema kritikari batek.

Bide horretatik doa zinemako nazioarteko kritikaren Fipresci Saria, Jean Luc Godarden *Gure musikari* emandako film onenaren saria. Infernua, purgatorioa eta paradisuaren ikuspegia islatzen du. Ironiaz betetako paradisu, *marine* yankiek zaindua. Baita gerraren infernua, Sarajevon zentratuta, iraganeko eta gaur eguneko gerrak elkartzen diren tokia; Palestina eta Israel.

Sail Ofizialera itzuliz —saileko 19 filmetatik 14 ikusi ditut— azken urteotako onenetakoa iruditu zait. Ez dira aparteko filmak ikusi, baina ezta ere ikusteak merezi ez zuenik.

Eta denen gainetik, mirari bat izan zen. Donostian behintzat. Epaimahaia, kritika eta ikusle goaren arteko erabateko adostasuna izan da Urrezko Mas-

korra Iran-Irako Bahman Gobadi zuzenari kurduaren *Dortokek ere hegana egiten dute* filmari emanez.

*Glamour* tantak ez dira faltatu izan. Jeff Bridges, Annette Bening, Emma Suarez, Day Huston ziren bere filmekin etorritako aktore-aktorea batzuk, baina, egia esan, izar asko ez da izan. Niretzat izarra zuzendaria da eta zuzendari ugari izan da: Oliver Stone, Michael Winterbottom, Jhon Sailes, Claude Chabrol, Adolfo Aristarain, Patricio Guzman, Robert Guediguain, Dusan Makavejev, batzuk aipatzeagatik. Dozena batzuk izan dira, gehienak filmen batekin.

Zinemaldiaren markoan Zinematografiako Sari Nazionala eman zitzaion

## GAZTERIA

«Gazteriaren Saria Zinemaldiko esperientziarik interesgarrienetakoa da; 375 gaztek 31 filmen artean erabaki behar dute»

gure Javier Agirresaroberi, argiaren magoa.

Zabaltegi Sail ederra izan da, beti bezala. Zinemaldiaren barruan, Beste Jaialdietako Perlak atalak beste jaialdietan saritutako film batzuen erakusketa izan da, Mike Leighen *Vera Drake* adibidez. Venezia 2004ko Urrezko Lehoia. Zabaltegi mundu osoko herrialde eta kulturako 35 film bildu ditu, Thailandia, Burkina-Faso, Senegal, etab. Azken herrialde honek ablatzioaren erritotari buruzko film oso interesgarria aurkeztu du: *Moolande*, Ousmane Sembene zuzendari senegaldar handiarena. Hemen bere filmik ez dugu ezagutzen.

Gazteriaren Saria Zinemaldiko esperientziarik interesgarrienetakoa da. Urtez urte 17 eta 21 urte arteko eta herrialde desberdinetako 375 gaztek 9 egunetan Ofiziala, Horizontes Latinos eta Zuzendari Berrien sailletako 31 filmen artean erabaki behar dute. Aurten Brad McGann zuzendariaren *In My Father's Dean* filmak, Zelanda Berria-Erresuma Batukoa, irabazi du sari hori. Atzera begirako Anthony Manen saila —35 film bere *western* ederrekin— eta *Incorrect@s* Sailak amaigabeko ilarrak izan ditu.

Zinemaldi aparta izan da.



O. ESKITZABEL

## PERTSONALKI ▶

▶ 28 urte ▶ Gasastegi baserriko alaba ▶ Beasainen bizi da ▶ Lazkaoko Atxa oilategiko langilea ▶ Abaltzisketako alkate izendatu zuten sanjoanek iritsi baino lau egun lehenago

**Zaletasunak?** Lagun giroan egotea gustatzen zait. **Zure ezaugarri bat?** Alde batetik bestera presaka ibiltzea. **Nola definituko zenuke Abaltzisketa?** Herri ederra, lasaia eta osasuntsua da.

## ZINEGOTZIAK

«Gure artean konfiantza giroa dago eta eskaintzen didaten laguntzarik ezean ez dakit zer egingo nukeen»



la berria eraikitzeo proiektua. Gainera, haurren jaitze tasa geroz eta altuagoa da.

**Adinekoen tasa ere nahiko altua da.**

Bai eta horren inguruan zerbait egin beharra nabaritzen dugu. Batez ere, emakumezkoen kasuan. Mezetara bakarrik irteten dira asko eta garrantzitsua da bestelako aukerak eskaintzea (astean behin biltzeko aukera...). Gizonezkoak, behintzat, musaren edota mezaren ondorengo hamaiketakoaren aitzakian gehiago ateratzen dira etxetik.

**Etxebizitzak eraikitzea ere garrantzitsutzat jo duzu.**

Abaltzisketatik ezkondu eta kanpoan bizitzera joandako

asko bueltatu dira herrira orain dela urte batzuk egindako etxebizitzetan bizitzera. Hori bultzatu nahi dugu; herritarrak bertan geratzeko aukera izatea nahi dugu. Etxebizitzaren eskarria badago, gainera. Horretarako lanean ari gara, baina ez da erraza, udaletxeak ez baitu lursailik.

**Herri txikietara bizitzera joateko joera areagotzen ari omen da. Somatzen al duzue horrelakorik?**

Kanpotarrak ongietorriak dira gure herrira, baina, hori bai, guretzat garrantzitsua da etortzen direnek herria bizia egitea eta ez asteburuetan edota oporraldia pasatzera bakarrik etortzea.



## ALKATETZA

«Hasieran, mundua gainera erori zitzaidan; eta hurrengo bi asteak oso gogorak izan ziren»

«Alkate izateak denbora eta ardura asko eskatzen du; ahal dudana egiten saiatzen naiz»



## ESKOLA

«Garrantzitsua da eskola berria eraikitzea; haurrek baldintza hobekak merezi dituzte»

## ALKIZA ▶ KULTURA

JOXEMI SAIZAR

U rte askotako lanak, zenbait inoiz ez direnak erakusten, tailerreko gauza batzuk prozesua azaltzen dutenak, «pilatuta gelditu eta askotan desagertu egiten direnak». Horiek dira Koldobika Jauregi eskultore alkizarrak Ordiziako Barrena jauregian, ondoko lorategian eta elizako atarian ikusgai jarri dituenak, Euskal Jaien mendeurrena dela eta.

Material aldetik oso anitza izan da oraingoan alkizarra: argizaia, igeltsua, brontzea, alabrea, papera... Eta lorategiko pieza handietan egurra eta harria uzartu ditu oraingoan.

Gaia aldetik berriz, urtzen zaldiekin identifikatu izan da Jauregi, baina bestelako asko ere badira erakusketa honetan. «Nire ibilbideko garai baten ikur direlako ekarri ditut zaldi batzuk hona, baina jostailuak edo jostailuekin zerikusia dutenak edo anatomiako gauza batzuk ere ekarri ditut», adierazi du eskultoreak.

Lorategian Irak eta herri kirolei erreferentzia egiten dieten piezak ere badira. Azken urteotan harriarekin landutako lanetan herri kirolekin erlazionatutako eskultura asko dauka alkizarrak. Irak artearen bidez islatzearen zailtasuna aipatu diogunean ikusleak nola ulertuko duen ez dakiela erantzuten du.

## Erljioa eta filosofia

Erakusketa honetan agertzen den beste gaia erlijioa da, «baina filosofia kutsu batekin». Elizaren atarian jarri ditu gai honen erlazionatutako bizpahiru lan: «Ez naiz katolikoa, ez praktikantea eta ez ezer, baina ekialdeko hinduismo edo budismo zen puntu bat dago nire lanean. Ez dakit erlijioa deitu».

Barrena Jauregian dituen lanekin lan didaktikoa egin nahi izan du, eskulturen prozesu osoa azaldu: fundizioan bezala moldeak nola egiten diren. Alaba txikia duenez eta berak hainbat ikastaro eman izan dituenek, artea erakutsi al daitekeen galdetuta, «zaila eta erraza» dela dio. «Askatasun handi batean oinarritu behar da, mugatu gabek». Eskolan lanik handiena hor dutela dio, «mugatu egiten dituztelako». «Azken finean ez da zer egiten duzun, baizik eta zein intentziorekin».

Barruan  
eta  
kanpoanKoldobika Jauregi garai eta gai desberdinetako  
eskulturak jarri ditu Ordizian ikusgai

Artista askoren lanik zailena egindako obrak saltzea izaten da. Ez da alkizarraren kasua, ezin du kexatu, azken bizpahiru urteotan «ondo» dihoakiolako. «Zaldiak egiten nituen garaian ez nuen bakarra ere saltzen eta saldu diren gehienak gaia utzi eta gero saldu ditut. Gauza hauekin ordea, pixkanaka saltzen joango naiz». Ustekabe asko izaten direla aitortzen du hala ere: «Gero eta arraroago egin... Emazteak ba-

zuetan esaten dit pieza baten-gatik ez dela salduko eta esaten diot horrela hasten bada horixe salduko dela. Eta alderantziz, polita dela esaten didanean, orduan akabo, ez dut salduko. Askotan niri gustatzen zaizkidanak ez dira saltzen eta alderantziz».

Erakundeek artean duten papera ere aterata da solasaldian. Laguntzak gelditu egin direla uste du Jauregi. «Legez egiten den obra publiko guztia-

ren % 0,1 artera destinatzeko da, baina ez daude behartuta eta askotan diru horrekin mobiliario publikoa sartzan dute edo arkitektoak edo aparejadoreak berak bere txapuzak sartzan dituzte». Askotan politikariekin zerikusi handia duela dio: «Borondatea baldin badu egingo da, bestela ez. Agian horrelako erakusketa bat proposatzera etorri udalderara eta ez dute onartzen, baina batzuetan teknikari batek

merezi duela pentsatzen du eta horrela ateratzen dira gauzak aurrera».

## Alkiza eta Tolosa

Alkizarra izanik, bere herrian eskulturaren bat jartzeko aukeraz galdetuta, «alkizarrak esan beharko dute» erantzuten du. «Herri txikia da eta ezin dute horrelako lan bat erosi. Akaso noizbait egingo dut, beraiek nahi badute, agian gauza itsusia egin eta ez dute nahiko. Goenaga pintorea ere hor dago», erantzen du.

Tolosaldean ez dago Koldobika Jauregiaren eskulturarik kalean jarrita. Tolosako eskultura ibilbidea izan du hizpide. «Ez naiz kexatzen hasiko. Oteizak aukeratu zuen eskulturgile boskotea eta hortik dator arazo: denak ez dira hoberenak eta ez maila berekoak». Oteizaren Ataus espazio publikoetan jarri diren artean hobereetakoa iruditzen zaio «kalitatez, mentalitatez eta dena». Polemika handiena berak sortu zuela gogorararazi diogu. «Tolosa une hartan berriegia zen horrelako gauza bat ikusteko eta onartzeko. Gauza bera gertatu zait niri Ordizian: ez dut uste eskulturak hondatzen ibili direnak nire kontra ari direnik. Ordizia bezalako herri batean ez dago ohitura handirik eta horrelako gauzak gertatzen dira. Ohiturak pixkanaka aldatzen joaten dira», dio.

Tolosan dagoen Txillidaren eskultura, aldiz, «nahiko eskasa» da bere gustuko. «Baina gauzak garai batean hala izaten ziren». Euskal eskulturren ibilbidea egin nahi izanez gero Mendiburu, Larrea eta beste batzuk faltako lirakeela iruditzen zaio. Hala ere ibilbide honi behar zuen etekina ez zaiola ateratzen uste du. «Ez bada eskultore hori zein den azaltzen, artxibo txiki bat egiten edo areto txiki bat bere maketak erakusteko... Eskulturen katalogo bat ere ez dago».

Aurrera begira, erakusketa batzuk baditu, hemen eta atzerrian. Donostiako Kur galeria berrian burniz eta egurrez egindako lanak erakutsiko ditu eta Esloveniaren hirurte behin egiten den erakusketa batean ere izango da. «Europa osoko jendea izango da eta hemendik Mikel Navarro eta ni joango gara. Gizakia da gaia eta bi gorputz-enbor eramango ditut».

**HITZA**, eskualdeko plaza  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

**661 678 818**  
Toki proposa iragartzeko



IRURA ▶ SAN MIGUEL JAIAK



Haurrek ederki gozatu zuten frontoi berrian jarritako bi pistetan. I. GARCIA

# Ikusmina sortu du frontoian antolatu den Scalextric lasterketak

Gaztetxo ugari azaldu zen auto txikiekin lehiatzeko prest; gaurko Jubilatuen Egunarekin amaituko dira jaien ekitaldiak

IMANOL GARCIA

Ekitaldiz beteriko eguna izan zen atzokoa. Goizean haurtxoak plazan jarritako puzgarri eta jokoetan ibiltzen ziren bitartean, gaztetxoek aurtengo jaien berritasunaz gozatzeko zuten frontoian: Scalextric lasterketak. Bi ordu luzez ibili ziren bi pista ezberdinetan: handienak hogeita hamabi metro zituen eta sei errail; txikienak, berriz, zortzi metro eta bi errail zituen. Julen Irurzun izan zen birarik azkarrena egin zuena eta Scalextric-eko autoa jaso zuen. Arratsaldean helduen txanda izan zen.

Eguerdian ezkonduen dantza sokak bildu zituen herritarrek plazara. Ondoren, dantza-

riak eta ikusleak bazkaltzera joan ziren. Gauerdian herensugearen erretzearekin, herritarrek, jubilatuek ezik, eman zieten amaiera aurtengo jaiak.

Ekitaldien artean, aipatzekoa da ostiral gauean bildutako jendetza frontoian eginiko *play back* jaialdian, prestaturik zeuden lauhun aulki guztiak bete zirelarik.

### Azken eguna

Jubilatuek bere eguna izango dute gaurkoan. Meza nagusiaren ondoren, bazkaria egingo dute Zaharren Biltokian. Ondoren, osteguneko jokoetako sarietan banaketa egingo da eta dantzaldiarekin amaituko dira jaien egitarauko ekitaldiak.



- iturgintza
- berogintza
- gasa
- gasoilezko instalazioak

656 41 68 08  
656 41 69 30

Kale nagusia,30 • 943 69 33 52 • IRURA



**Carpintería ATARI, S.L.**  
AROSZTEGIA

*Aroztegi mekanikoa. Obrak eta berrikuntzak.  
Eskailera eta altzariak neurria. Exzeibizitateko eta likal komertzialeko aroztegia.*

E-maila: [catari@euskalnet.net](mailto:catari@euskalnet.net)  
Ibaiondo Industriagunea, 7 • 20271 IRURA • Telf.: 943 69 01 40 - Faxa: 943 69 34 29

BIDEGOIAN ▶ XV. KULTUR ASTEA

## Txokoak margotu dituzte haurren lehiaketan

Txikienei zuzendutako ekitaldiekin amaitu zen atzo aurtengo Kultur Astea



Herriko plazan egin zituzten batzuek beren marrazkiak. I. GARCIA

I. GARCIA

Bidegoiango XV. Kultur Astea-ri amaiera eman zitzaion atzoko ekitaldiekin. Berrogei haur inguruk hartu zuten parte marrazki lehiaketan. Kultur Astearen barruan azken urteotan errepikatzen den ekitaldia da. Haurrek marrazki orri handia eta margoak eskuetan hartu eta bakoitzak hautatutako herriko txokora joaten dira: eliza, udaletxea, ... denetarik margotzen dute.

Manolo Arretxe margolari tolosarrak egiten ditu epaile lanak. Bere hitzetan, «adin

hauetan antzera margotzen dute». Arretxeren nahia haurrek etorkizuneari ere jarraitzea da: «Ea margotzeko go-go pizten zaien». Lehiaketa hiru mailatan banatzen da. Lau eta zazpi urte bitartekoetan, Josu Galartza eta Ander Urdanpilleta izan ziren lehengoa eta bigarrena. Zortzi eta hamabi artekoetan, Aritz Zelaia eta Ugaitz Egiguren. Hamahiru eta hamasei bitartekoetan, Mikel Lasa eta Iban Urdanpilleta. Lehiaketa eta gero, Poxpolo eta Mokolo pailazoak eta txokolate jatea izan ziren azken ekitaldi gozoak.

GAUR ▶

12:30. Meza nagusia.  
14:30. Jubilatuen bazkaria, sari banaketa eta dantzaldia.

Gazteok



Egotea goaz!

matraka.info

TOLOSA ▶ ABELGORRI ETA GAZTA LEHIAKETAK

# Abelgorrien lehiaketan bikain; gaztakoan, berriz, esku hutsik

Eskualdeko gaztarik onenaren saria hutsik geratu zen Lizardik Beotibarren antolatutako lehiaketan; eskualdeko behiek, berriz, sari ugari eskuratu zituzten atzo Ferialekuan Abelgorrien Lehiaketan



Gutzira, hogeita hamabi gazta aurkeztu ziren Lizardi Elkarteak antolatutako gazta lehiaketara. N. LATABURU



Askotariko arrazetako behiak zeuden ferialekuan. O. ESKITXABEL

JOSE ANTONIO OTEGI ▶ BASERRITARRA

## «Behiak behar bezala erakusteko lana asko egin behar izaten da»

Atzoko lehiaketara esne behiak aurkeztu zituen Astesuko Gorua Goierna baserriko Jose Antonio Otegi. Bost sari eskuratu zituen.

**Zenbat behi aurkeztu dituzu gaurko lehiaketara?**

Frisoi arrazako (esnetarako) hamabi behi ekarri ditut lehiaketara.

**Bost sari eskuratu dituzu; zerbait berezia izango dute zure behiek, ezta?**

Itxura ona ikusiko diete, non-



Jose Antonio Otegi. N. LATABURU

bait. Aurreko urteetan ere sariak lortu izan ditut; uztailaren 1ean Irungo sanmartzialetan ere hiru sari eskuratuta bueltatu nintzen etxera.

**Zer iruditzen zaizkizu gaurko bezalako azokak?**

Tolosako Abelgorri Lehiaketara urtero etortzen naiz; ondo ikusten ditut mota honetako azokak. Hori bai, behiak behar bezala erakusteko lan asko egin behar izaten da horrelako egunetan. ◀

O. ESKITXABEL/N. LATABURU

Tolosa, azoka erraldoi bihurtu zen atzokoan; ohiko lekuetan ezezik, Beotibarren eta Ferialekuan ere ikusteko ugari izan zen.

Gutzira hogeita hamabi gazta aurkeztu ziren atzo Beotibarren egindako Tolosako XVIII. Ardi Gazta Lehiaketan eta horien artean bost baino ez ziren izan saria eraman zutenak.

Epaimahaia goizeko 10:30ean hasi zen gazta dastaketarekin eta 13:00etan eman ziren irabazlezen izenak. Epaimahakideen artean Tolosako hainbat jatetxe ezagunetako sukaldariak izan ziren.

Lizardi Kultur Elkarteak Tolosako Udalaren eta Kutxako gizarte ekintzen sailaren la-

guntzarekin antolaturiko gazta festaraino gerturatu zirenek ere izan zuten gazta dastatzeko aukera, saririk jaso ez zuten gaztak jendeari eskaini baitzitzaizkien.

Lehenengo saria oso lehiatua izan zen eta bi punturen aldean izan zen lehenengo bi sailkatuen artean. Biak ere Araba aldera joan ziren. Lehenengoa Jose Mari Jauregi ilarduiarrentzat izan zen, 758 punturekin 750 euroko saria eman zuela. Bigarren postua, berriz, Felix Etxezarretak eskuratu zuen bi puntu gutxiagorekin, 756 hain zuzen ere. 360 euroko saria jasotzeko aukera eman zion bigarren postu honek.

Sailkapeneko hurrengo hiru postuak Gipuzkoan geratu ziren. Hirugarren saria, 240 eu-

### hilberriak ▶

#### Josefa Agirre Aginalgalde (Juan Odrizolaren alarguna)



Atzo hil zen, Donostian, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Bere seme-alabak: Pello, M. Jose eta Jose Ignacio Sagredo, Simoni; bilobak: Iñaki, Saioa, Ainhoa eta Miren; birloba: Iradi; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizue eta arren etor zaitetzela BIHAR, ASTELEHENA, arratsaldeko 19:00ETAN, TOLOSAKO ANDRE MARIAREN parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Santa Maria 6-3.

TOLOSA, 2004ko urriaren 3a

oharra ▶ gorputza laguntza bere familiarren artean egingo da

#### Lurdes Begiristain Jauregi



Maite ditut, maite,  
gure bazterrak  
lanbroak izkutatzen dizkidanean...

Maite zaitugu orexarrok

OREXA, 2004ko urriaren 3a

eskela hartzten dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldekohtza.info

#### Lurdes Begiristain Jauregi



Txikia den guztia  
handia egiten duzun hori,  
bidaia ona egin, lagun.  
Maite zaitugu.

Zure lagunak

TOLOSA, 2004ko urriaren 3a

**ABELGORRIAK ▶ ESKUALDEKO SARITUAK**

**SUITZA ARRAZA**

**Lorenzo Iturrioz (Alegia).** Gorotzenea baserriak bi urtetik lau urte eta erdi bitarteko behi gazteen bigarren saria eta lau urte eta erditik gorako behien lehenengo saria eskuratu zuen.

**LIMUSIN ARRAZA**

**Aldalur anaiak (Aldaba).** Lopetegi baserriak 24-36 hilabete bitarteko behien lehenengo saria eskuratu zuen.

**FRISOI ARRAZA**

**Jose Manuel Zubeldia (Asteasu).** Ondartza-bitarte

**GAZTA LEHIAKETA ▶**

Izena	Puntuak
1. Jose Mari Jauregi	758
2. Felix Etxezarreta	756
3. M. Angeles Iñurrategi	739
4. Aradi gazta koop.	714
5. Galtzata S.C.	712

rokoa, Zerainera joan zen Maria Angeles Iñurrategiren besopean, 739 punturekin. Lau garren sailkatuak, Aradi gazta kooperatibak, 714 puntu lortu zituen eta 180 euroko saria eraman zuen. Azken sailkatua, Galtzata elkarteak izan zen eta 120 eurotako saria jaso zuen.

Baina ez zen atzokoa egun ona izan gure eskualdeko gaztagileentzat, lehiaketara aurkeztu zirenak esku hutsik atera baitziren Beotibar frontoitik. Hiru izan ziren lehiaketan parte hartu zuten Tolosaldeko gaztagileak. Orexan, Orendainen eta Tolosan egindako gaztak aurkeztu zituzten; baina, lehiaketan hamabi hoberenen artean geratu ez izanagatik hutsik geratu zen eskualdeko gazta onenaren saria. Datorren urtera arte itxaron beharko du sariak jaberik gabe.

Lizardi Elkarteak antolatutako XV. Juanito Zabalen Oromenezko Lehiaketan ez zen jende gehiegirik bildu Beotibarran. Dena den, epaia jakitera eman zen unea izan zen jendetsuena eta sari banaketa txalotua izan zen.

baserriak 12-18 hilabete bitarteko bigarren saria, 18-30 hilabete bitarteko bigarren saria, 2 urtetik 3 urte bitarteko behien bigarren saria eta 4 urtetik 5 urte bitarteko behien lehenengo eta bigarren sariak lortu zituen.

**Jose Antonio Otegi (Asteasu).** Gorua-gorena baserriak eman zituen sari gehien: 12-18 hilabete bitarteko bigarren lehenengo saria, 18-30 hilabete bitarteko lehenengo saria, 2 urtetik 3 urte bitarteko behien lehenengo saria, 3 urtetik 4 urte bitarteko behien lehenengo saria, 4 urtetik 5 urte bitarteko behien lehenengo saria eta, 5 urtetik gorako behien bigarren saria.

**Behiak, ferialekuan**

Gipuzkoako XXXV. Abelgorri Lehiaketa burutu zen ferialekuan, . Blondak, Limusinak, pirenaiak... arraza desberdinetako behiak ilaran jarrita topa zitezkeen bertan.

Behiek beren txanda itxaroten zuten, epaimahaiaren aurretik pasa eta beren edertasuna erakusteko unearan zain. Marruka, protesta egin zuten askok.

Kolore desberdineko behiak ikus zitezkeen: marroiak, pintokak...

Ferialekuan bertan haragitarako behien lehiaketa burutu zuten. Kanpoan, berriz, esne behien lehiaketa egin zen.

Arrazak gauzatu zen politikari lehiaketa; Suitza, Frisoi, Pirenaika, Blanca eta Limousin arrazako behiak epaimahaiaren aurretik pasa ziren. Talde bakoitzean, gainera, adinaren arabera sariak banatu zituzten.

Lehiaketaz kanpo, txaroles arrazako behien erakusketa ere gauzatu zen.

Eskualdean sari ugari geratu ziren; Asteasuko, Alegiako eta Aldabako baserrietako behiak izan ziren sarituak.

Ferialekuaren sarreran, Gipuzkoan jaio eta hazitako bigantxa eta idiskoak aurkitzen ziren salgai. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak 150 eta 300 euro bitarteko diru laguntza eman zuen buruko.

**TOLOSA ▶**

**Perretxiku eskaintza zabala, atzoko azokan**

**Gibelurdinak, ziza horiak, galanpernak eta kuletroak ikus zitezkeen postuetan**

**PABLO ALBERDI**

Perretxiku eskaintza zabala ikus zitezkeen atzoko azokako postuetan; ia 400 kilo onddo jarri ziren salmentan. Hamar eta hogeita bi euro bitartean aurkitzen zen onddoen salneurria.

Onddoez gain, gibelurdinak, ziza horiak, galanpernak eta kuletroak ere egon ziren salgai.

Errezil sagarrak atzoko azokan egin zuten urteko lehenengo agerpena. Errezil sagarren eskaintza gehiagora joango da.

**AZOKA ▶**

Zerkausia	merk.	gares.
<b>Bertako produktuak</b>		
Onddoak	10	22
Ziza horia	14	-
Gibelurdina	20	-
Galanperna	10	-
Arkumea	3	3,20
Oilaskoa (3 ast.)	1,50	-

Produktu ekologikoak		
Errezil sagarra	2,13	3
Kalabaza	1,60	3,04
Patata	1,52	-

Berdura plaza		
Lilia	1,20	-
Ziklamena	3,50	4,50
Begonia	1	1,20

**VILLABONA ▶**

**Endika Abril txapelketako finalak, gaur**

Endika Abril Errebote Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur Villabonako Errebote plazan. Ustaritzeko Kapito Harri eta Hazparneko Noizbait ariko dira aurrez-aurre; finala, 11:00etan hasiko da. Eurria eginez gero, erreboteko finala datorren igandera, urriaren 10era, atzeratuko da.

**TOLOSA ▶**

**Lasa eta Zabalaren oroigarria, faltan**

Herenegun, Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren oroigarria falta zela ohartu ziren beren senideak; oroigarria Tolosako kanposantuan aurkitzen zen. Lapurreta, Enrique Rodriguez Galindo, Guardia Zibileko jeneral ohia, Ocaña II kartzelatik atera zen egun berean gertatu zen.

**TOLOSA ▶**

**Tolosak bi puntu galdu zituen atzo etxean**

Tolosak ezin izan zuen berdinketarik pasatu, berdinketa lortu zuen atzo Berazubín Aretxabaletan aurka jokaturiko futbol partidari. Bi taldeak gogor aritu ziren eta garaipena eskuratzeko aukerak ere izan zuten urdinek. 10. minutuan penalti bat huts egin zuten eta azkenean puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuten.

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIAK**

**▶ 112**

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaidea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Asunzion Klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aitzondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

**GARRIAOK**

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxis: 67 04 20
- ▶ Taxis (Leitza): 608 873016

**EUSKALTEGIAK**

- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Iturrioz I., Euskal Herria, 3 (Ibarra). 67 09 15.  
**Bihar.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola 3 (Tolosa). 65 10 40.  
Plaza M. Elbarren 36 (Leitza)112

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
villabona\_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaidea.** 687 41 00 22  
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaidea.** 687 41 01 18.  
leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

**iragarki laburrak ▶**

**LANA**  
**Etxeko lanak.** Neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 626 86 89 14.

**ESKAERA**

**Gasteizera joateko.** Asteleheneetik ostiralera, eguerditan, Tolosatik Gasteizera autoz joateko norbait behar dut. Gasteiz erdibana. Telefona: 600 05 42 27.



**TOLOSALDEA**  
1224 AM | 87.9 FM  
99.8 FM | 94.8 FM

**Otegi eraikuntzak, s.l.**  
Bizkai kalea, 2 - behea  
20400 TOLOSA  
Faxa: 943 69 71 98  
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Altoz.** Eskola berriaz bilera. Bihar, 17:00etan, Kultur ganbaran.

**Tolosa.** Ikasturte hasierako bilerak Hirukide ikastetxean. Bihar, Haur Hezkuntzako (4 urte) haurren gurasoentzat, 17:30ean, Jesuitinetan; eta 18:30ean, leku berean, Lehen Hezkuntzako (6. maila) ikasleen gurasoekin.

**Villabona.** Euskal Herria aitortu errespetatu kontzentrazioa. Bihar 20:00etan Berdura plazan.

**IKASTAROAK**

**Ibarra.** Gimnastika erritmikoan izena eman daiteke 629 11 20 61an.

**Ikaztegieta.** Aerobik ikastaroan izena emateko aukera, udalebean (943 65 33 29) edo kiroldegian (943 65 20 46).

**Tolosa.** Gimnastika erritmikako eskolan izena eman daiteke, Igarondo igerilekuan eta Tolosa CFko bulegoetan.

**JAIK**

**Irura.** Jubilatuen Eguna: 12:30ean meza nagusia; 14:30ean bazkaria Zaharren Biltokian; ondoren, jokuetako sari banaketa ekitaldia eta dantzaldia, jubilatuen egoitzan.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Garfield. 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar 19:30ean eta 22:30ean .

**AURKITUAKOAK**

**Tolosa.** Kate bat eta eraztun bat aurkitu dituzte. Galdutuenak dei dezala 943 68 33 51 telefono zenbakira.

# Oraingoan apustua itxi dute

**TOLOSA ▶** Erasun eta Olasagasti aizkoran eta segan neurtuko dira uztailean Garaten edo Iturriotzen; Cantabrico tabernan itxi zuten atzo apustua



Erasun eta Olasagasti segalari-aizkolariek bere taldeekin atzo eguerdian Cantabrico tabernan. J.SAIZAR

**JOXEMI SAIZAR**

**A** pustuen katedrala dela frogatu zen berriro atzo. Tolosako Cantabrico tabernaz ari gara, noski. Zenbat apustu egin ote diren bertan azken hamarkadetan?

Atzokoan Zizurkilen bizi den Juan Manuel Erasun aiarra eta Jose Mari Olasagasti igeldotarra izan ziren protagonista. Aizkoran eta segan aritzekotan dira. 1990an egin zuten apustuaren errebantxa nahi dute egin: 20 kanaerdiko aizkoran

eta jarraian bi orduz segan. Orduan igeldotarrak irabazi zuten, aizkoran 15 minutu atera zituen eta 270 kilo belarreko abantaila atera zion bukaeran. Aurreko larunbatean ere elkar-tu ziren toki berean, baina ez ziren ezertara iritsi. Atzo berriz lortu zuten akordioa eta apustuaren xehetasun gehienak lortu utzi zituzten.

Hogeina kanaerdiko enbor moztuko dituzte aizkoran eta segidan segan ariko dira bi orduz. 12.000 euro jokatuko dituzte eta seinale gisa 1.500

euro jarri zituzten atzo bertan. Gabonetarako kopuruaren erdia jarri beharko dute, San Jose inguruan beste erdia eta apustuaren bezperetan azken seinalea.

Uztailaren 24an jokatuko dute, Andoingo Garateko zelaian edo Aiako Iturriotzeko zelaian, belar kopuru eta kalitatearen arabera. Belar biltzaileak lanean noiz hasi izan zen aurreko asteo desadostasun nagusia. Atzo, azkenean Erasunek amore eman behar izan zuten eta segan hasi eta handik

hamar minutura hasiko dira lanean kirolari bakoitzaren belar biltzaileak.

«Lan gogorra da, baina animatu gara eta orain prestatu behar da hamar hilabetetan», adierazi zuen Olasagastik akordioa itxi ondoren. «Azkenean amore eman behar izan dugu belarra biltzeko denbora horrekin, bestela hor gelditzen ginen. Aizkoran ahalik eta denbora gutxiena kentzea komeni zaib», berriz, Erasunek.

Tabernan, besteak, pintxo jaten eta telebistari begira.

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Xabat Urkola (Anoeta). Bihar 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiazen partetik.



**ZORIONAK**  
 Zure bataio egunean, muxu pottolo!



**URTE ASKOAN**  
 Beñat Amiano Allue (Altoz). Gaur 9 urte. Zorionak etxekoan partetik.

**HITZA, zorion agurren tarte**

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!